



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2001eko abenduaren 26a

129 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikokoak suntsitzeko arauak ematen dituen (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Minbizia duten haurren eguna dela-eta egindako manifestuari atxikitzeko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

—Adierazpen politikoa, Liejan, “Legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakarien bigarren konferentzia” izenekoan onarturiko erabakiari atxikitzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Zentsua egiteko kontrataturiko langileen lan egoerari buruzko galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboñés Bermejo andreak egina (9. or.).

—N-232 errepidearen bikoizketak foru lurraldean izanen duen trazadurari buruzko galdera, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak egina (10. or.).

—Galdera, Agoizko eskualderako lurraldea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (10. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

—Lan egutegia Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2002 urtean (12. or.).

—Nafarroako Parlamentuko Bulego Orokorretako Erregistroaren ordutegi ofiziala (13. or.).

—Nafarroako Parlamenturako hiru fotokopiagailu erosteko lehiaketa (13. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

—2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatzeko Arauetako 14 eta 15. arauak aldatzea (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko abenduaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuaren tramitazioa zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**Bigarrena.-** Zuzenketak aurkezteko epea irekitzea, **2002ko otsailaren 4ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen**

Entzefalopatia espongiforme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituen azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuko 5. artikuluan biltzen den Estatuko oinarriko arautegiak xedatzen duenez, arriskuko material espezifikoak, ekoitzirikoan, erabat suntsi-

tu behar dira edo eraldaketa industria baimendun batera igorri, ondoren desegin ditzan. Halaber, xedatzen du material horiek suntsitu behar direla hondakinei buruzko legeetan ezarritako betebeharren arabera baimenduriko zabortegi batean lurperatuz, 133 °C, 20 minutu eta 3 bar edo hortik goitiko presioko aurretiko arazketa egin ondoren. Azkenik aurreikusten du erraustegiak erabiltzen ahalko direla, hori posible denean, aurretiko arazketarik gabeko zuzeneko errausketa edo aurretiko prozesu horren ondorengo errausketa, osoa edo osagarria, egiteko.

Bidezko da arauak ematea Nafarroako Foru Komunitatean Estatuko oinarriko aurreikuspenak eta Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legekoak gauzatzeko. Izan ere, hondakin horien geroko errausketa foru titulartasuneko zerbitzu publikoa izan dadin sustatu nahi da, otsailaren 13ko 1/2001 Foru Legeko zioen azalpenean adierazirikoarekin bat.

Foru Komunitateko berezko arautegia ezartze-ko kontu hauek hartu behar dira aintzakotzat:

A) Nafarroan arriskuko material espezifikoak eraldatzeko industria bakar bat dago, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Errege Dekretuko 6. artikularekin bat baimendu duena.

B) Arriskuko material espezifikoaren aurretiko arazketaren ondoren sorturiko hondakinak bildu behar diren zabortegia da, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 16. artikuluan ezarritako hondakinen suntsipenerako hurbiltasun printzipioari jarraituz, enpresa dagoen tokiko hondakin solidoen arazketarako zentrokoa. Gaur egun Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen du zentro hori. Bidezko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitekoak zehaztea toki entitate horrek aplikatzeko den arautegiaren arabera hondakinak hartu eta suntsitzeko eginbeharrak egin ez baditza.

C) Nafarroako Gobernuak funtsezko azpiegitutzat jotzen du Foru Komunitatean abere hilak

eta arriskuko materialak zuzenean errausteko sistema ezartzea entzefalopatia espongiforme kutsagarriari loturiko gaixotasunei aurrea hartu eta horiek desagertazteko, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 13ko 1/2001 Legeko zioen azalpenean adierazi bezala. Beraz, arlo honetako osasun aurrerapen eta bermeak ezin utzi daitezke Espainiako edo Europako beste eskualde batzuetako azpiegitura edo dotazioen menpe. Izan ere, hauek askotan zahartuak daude edo hasiera batean beste helburu batzuetarako prestatutako instalazio zaharren moldaketaren ondoriozkoak dira, osasun publikoa edo ingurumena babesteko Europako Batasuneko arautegiko betebeharrak betetzen ez dituztenak edo ozta-ozta betetzen dituztenak.

D) Nafarroako Gobernuak saio administratibo eta ekonomikoak egin bazituen ere, horretan interesa adierazi zuten ekimen pribatuak ez dute errausketa abiarazi. Hori dela eta, ikusirik enpresa horiek instalazioa burutzeko oztopo gaindiezinak dituztela, gaitasun tekniko edo ekonomikorik ez izategatik edo Nafarroaren edo beste edozein gizarte aurreraturen garapenik txikienera ere aurka egiten dioten talde batzuen gehiegizko eta neurririk gabeko presioa paraitzeagatik, "subsidiaritate printzipioa" dela eta, ekimen publikoak, ekimen pribatua ailegatzen ez den tokietan, bidezko diren ekintzak egin behar ditu, zuzeneko errausketa sistema baten kudeaketa enpresa pribatuaren eskuetatik sektore publikora pasa eta helburu ukaezin bat lortzeko: Nafarroan erraustegi moderno bat, ingurumen eta osasun arloetan ahalik eta berme gehien dituen, edozein baldintza ekonomiko bazterrean utziz.

Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legeak aurreikusten du hondakin horiek enpresa pribatuaren bidez egin ahal dadila, ekoizle edo edukizaitileen beren bidez, edo Foru Legeko 12 eta 13. artikuluek arautzen duten ekimen publikoaren bidez, alegia, bakarrik edo gehienbat kapital publikoa duen eta juridikoki hondakin berezien kudeatzaitzat joa den enpresa baten bidez. Enpresa publiko horrek lurralde batean araztegi bat paratu nahi badu, araztegi hori udalez gaindiko proiektu sektorialetarako lurraldearen antolamenduari buruzko foru legeetan aurreikusirik prozedurari jarraituz ezarri beharko da eta horrekin batera nahitaz ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa eduki beharko du. Gainera, enpresa publikoa izanez gero, proiektu sektorialean aurreikusten diren azpiegitura, dotazio eta instalazioen eraikuntza eta konponketa, baita haiek abiarazi eta ikuskatzeko egitekoak ere, lurraldearen antolamenduari

buruzko foru legeek agindu bezala, interes orokorreko herri-lantzat hartuko dira. Hori dela eta, udal lizentziarik edo bestelako aurretiko udal kontrolik ez dute behar, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 66. artikuluko 1. idatz-zatian xedatu bezala.

Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko artikuluko 3. idatz-zatiak esku ematen die erkidego autonomoei hondakin batzuk kudeatzeko ekintza batzuk edo guztiak titulartasun autonomikoko zerbitzu publikotzat jotzeko. Orain arte Pitiillasen ekimen pribatuak sustatu duen zuzeneko errausketa sistema foru sektore publikoak bere gain hartzea funtsezko kontu bat da abere hilak eta arriskuko material espezifikoko foru titulartasuneko zerbitzu publikotzat jotzeko, errausketen bidez, Hondakinei buruzko Estatuko Legearekin bat. Artikulu horretako 4. idatz-zatiak onura publiko eta gizarte interesekotzat jotzen du hondakinak bildu, baloratu eta desegiteko instalazioak ezarri edo handitzea, nahitaezko desjabetzapena egin ahal izateko.

Hain zuzen ere, hondakin horien kudeaketa foru titulartasuneko zerbitzu publikotzat jotzea da arrazoi nagusietariko bat Foru Lege maila duen arau bat osatzeko.

**1. artikulua.** Entzefalopatia espongiforme kutsagarrietarako arriskuko material espezifikoa, Nafarroan ekoizten dena, eta Nafarroako abeltzietan hiltzen diren behiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baimenduriko industria batera bidali beharko dituzte beren edukizaitile edo jabeek, ondoren suntsitzeko.

**2. artikulua.** 1. Zuzeneko errausketa sistemarik ez dagoenean, arriskuko material espezifikoa hiri hondakin solidoen araztegirik hurbileneko zabortegean lurperatuz deseginen da edo bestela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baimenduriko eraldaketa industriaren kokaguneari dagokion zabortegean.

Materiala azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuko I. eranskinean aipatzen den aurretiko arazketaren ondoren uzten ahalko da bakarrik, hondakinei buruzko legeetan eta aplikatzeak diren beste arauetan ezarriko betebeharrak tekniko-aren arabera.

2. Hala ere, hiri hondakin solidoen araztegia kudeatzen duen toki entitateak hitzartzen ahalko du eraldaketa industria baimendunarekin kudeatzaitile baimendun batek arriskuko material espezifikoko Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo daogun zabortege edo erraustegi oso edo osagarri batera eraman ditzala, azaroaren 24ko 1911/2000

Errege Dekretuko I. eranskinean aipatzen den aurretiko arazketaren ondoren.

**3. artikulua.** Arriskuko material espezifikoak edo produktu eraldatuak lurperatu behar direneko zaborteziaren titular den toki entitateak arriskuko material espezifikoak sunsitzeko Europako Bata-suneko arautegian, Foru Lege honetan edo azaro-aren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuan ezarriko eginbeharrak egin ezik, gorabehera hauek gertatu dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioko organo eskudunak eskatuko dio toki entita-teari, hilabeteko epean, Foru Lege honetako 2. artikuluko 1. idatz-zatian xedatu bezala egin deza-la, bere kontura.

Epe hori, gutxienez ere hilabetekoa, bukatu ondoren, toki entitateak bere horretan badirau, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu eginbehar hori egiteko, toki entitatearen kontura eta horren orde.

Toki entitateak ordeztzeko eskumen hori Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 60. artikuluan ezarri bezala erabiliko da.

b) Hala bada, Nafarroako Gobernuak Foru Lege honetan aipatzen diren hondakinak zaborte-gian lurperatzeko egitekoak zerbitzu publikotzat joko ditu eta horrekin batera onura publiko edo gizarte interesekotzat, ondorio guztiekin, nahitaez-ko desjabetzapenari buruzko legerian aipatzen direnak barne.

**4. artikulua.** 1. Nafarroako errauztegi oso edo osagarriak erabiltzea posible denean, ingurume-nari buruz indarra duen arautegian aurreikusten diren betebeharrak betetzen dituztenak, hondaki-nak honela ere sunsitziz ahalko dira:

a) Aurretiko arazketarik gabeko zuzeneko errausketaren bidez.

b) Arriskuko material espezifikoaren aurretiko prozesuaren ondoren errausketa oso edo osaga-riaren bidez, 2224/1993 Errege Dekretuko III. eranskinean aipatzen den aukerako sistemaren bat erabiliz, baldin eta prozesu horren ondoren koloratzaile edo markatzailearen tindua oraindik ere atzematen ahal baldin bada.

2. Arriskuko material espezifikoak edo produktu eraldatuak hondakinei buruzko legerian eta apli-katzekoa den gainerako arautegian ezarriko betebeharrak teknikoaren arabera errausketa dira.

3. Errausketaren ondoriozko hondakinak errausketa Nafarroan egoteagatik hiri hondakin solidoen dagokion arautegian lurperatu dira.

**5. artikulua.** 1. Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 12. artikuluko 2. idatz-zatiarekin bat, arriskuko material espezifikoak eta abeltegietan hildako abereak errausketa egiteko-ak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa-ren titulartasuneko zerbitzu publikotzat jotzen dira.

2. Ondorio guztietarako, baita nahitaezko des-jabetzapenari buruzko legeriako ondorioetarako ere, aurreko idatz-zatian aipatzen diren zuzeneko errausketa Nafarroan ezartzea onura publiko eta gizarte interesekotzat jotzen da.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatzen den zerbitzu publikoa bakarrik edo gehienbat kapital publikoa duen enpresa baten bidez ematen ahalko da, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20eko 13/1994 Foru Legeko 12. artikuluekin bat. Enpresa horixe izanen da egin litezkeen desjabetzapenen onuradun.

Enpresa horrek eskumena izanen du Nafarroa-ko abere hilen eta arriskuko material espezifikoaren errausketa proiektua sustatzen duen enpresa pribatua osorik edo hein batean, gogoz edo, hala bada, nahitaezko desjabetzapenaren onuraduna den aldetik, eskuratzeko.

Halaber, enpresa publikoak eskumena izanen du arriskuko material espezifikoak eraldatzen arduratzen den industria eskuratzeko, beharrez-koa bada, Nafarroako Foru Komunitateko Admi-nistrazioak baimendurik.

### Azken xedapenak

**Lehena.** Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldiz-kari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartu-ko du indarra.



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Minbizia duten haurren eguna dela-eta egindako manifestuari atxikitzeko adierazpen politikoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko abenduaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Gaur minbizia duten haurren eguna da. Borroka honetan inoiz ez gaude bakarrik, baina askoz gutxiago gaur, minbiziak jota dauden umeen senideen elkarteak oihu hau egiteko batzen garelako: “Goazen aurrera haurren minbiziaren aurka”.

Oihu egin nahi dugu mende berri honen hasieran, minbiziak jota dauden ume eta gazte guztiak, duten jatorria dutela, osatzeko aukera berdina edukitzea nahi dugulako.

Horregatik, ume hauek Haurrentzako Onkologia Unitate Berezieta sendabidea hartzea eskatzen dugu, unitate horietan pediatrik baitaude eta, ondorioz, sendabiderik onena eta seguruen emango baitzaie ume gaixo hauei.

Gainera, nahi dugu gure osasun-arduradunek 18 urtetan ezar dezatela pediatria unitateetan onartua izateko mugako adina.

Orobat, eskatzen dugu gaixotasuna gainditu duten haurrak bereziki kontuan hartuak izan daitezela sendatu ondoren geratu zaizkien arrastoak antzemateko eta sendatzeko. Egoera larriak bizi

izan dituzte, baina nahi dugu bai orain ikastetxetan eta institutuetan, bai gero lan- munduan, denek ahalik eta laguntza handiena ematea.

Halaber, sendagile guztiak urtero zenbat kasu berri azaltzen diren jakin dezaten eta, ondorioz, egoera kontuz aztertu eta eta konponbiderik onena bila ditzaten, diagnostiko berriak eta kasu horien bilakaera Tumoreen Erregistro Nazionalan jakinarazi beharra zorrotz bete dadila eskatzen dugu.

Baina, batez ere, etorkizunari elkarrekin begiratzeke elkartzen gara gaur. Itxaropenez beteta ikusten dugu etorkizun hori, medikuntzak, ikerkuntzak eta osasunbide berriek osatze gehiago eta arrasto txar gutxiago izaten lagunduko dute eta. Horretarako, ahaleginak bildu behar ditugu, ikerkuntzara giza eta diru baliabideak zuzenduz, gero eta haur gehiagok gainditu ahal izan dezaten minbizia.

Horregatik, gaur, abenduaren 21ean, minbizia duten haurren egunean, Minbizia duten Haurren Gurasoen Federazioak, Espainiako bazter guztietatik oihu hau egiten dugu: “Gozen aurrera haurren minbiziaren aurka”.

## **Adierazpen politikoa, Liejan, “Legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakarien bigarren konferentzia” izenekoan onarturiko erabakiari atxikitzeko**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko abenduaren 4an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Europako Batasuna sortzeko eragile izan dira beti herrien berradiskidetzea, bakea mantentzeko horien arteko etengabeko lankidetzeta, giza eskubi-deen zein oinarritzko askatasunen errespetua eta lurralde horietako oparotasuna.

Europakoen integrazio-proiektua arrakastatsua izan zen, halakoa izan da eta arrakastatsua da oraindik ere. Hala ere, hori dira, batetik, iragan hurbila zein irailaren 11ko gertakari tragikoak eta, bestetik, bilakaera sozioekonomiko zein instituzionala eta Europako Batasunaren zabaltzea, gutxi barru gertatuko baita; horiek guztiek Batasuna berbideratzea agintzen dute.

Horiek horrela, “Bavaria, Katalunia, Eskozia, Ipar Renania-Westfalia, Salzburg, Walonia eta Flandes konstituzio-erregioen adierazpen politikoa” sinatu zuten legegintza ahalmena duten erregioek Bruselan, 2001eko maiatzaren 28an; adierazpen horretan azaltzen zenez, konstituzio-erregioek Europako Batasunaren barnean daukaten eginkizuna indartu egin behar da.

Europako Batasunaren etorkizunari buruz gertatzen ari den eztabaida oso gustura hartu dute legegintza ahalmena duten erregioek. Horientzako, hauek dira helburu nagusiak: Europakoen integrazio-prozesu malgua sustatzea, eta areagotzea, halaber, Europan erabakiak hartzeko prozesuaren gardentasuna, ardura, eragingarritasuna eta hurbiltasuna, bai eta Europako Batasunaren zilegitasun demokratikoa ere. Helburu horrek nahitaezkoa bihurtzen du estatuaren mailaren azpitik dauden botere guztien inplikazioa, legegintza ahalmena duten erregioena barne. Egia esan, erregioek aukera izan behar lukete duten eskarmentua Europako Batasunera ekartzeko, eta, hartara, gobernu maila guztiek batera ulertuko lukete politika Europakora. Are gehiago, dituzten ezauzgarri eta egitura berariazkoak oinarri hartuta, legegintza ahalmena duten erregioek erreklamatzeko dute lekua izatea erabakiak hartzen diren Europako guneetan, eta erabakiok hartzeko prozesuan aktiboki eta zuzenean parte hartzea.

Europako herritarren nahia da, halaber, Europako Batasuna gardenagoa izatea. Bizi diren

lekuan bizi direla, erraz jakin behar dute arlo jakin batean boterearen zein maila den eskuduna –tokiko, erregioiko, nazioko zein Europako maila–, eta nor den eskumen bakoitzaren erantzule politikoa. Hori horrela izan dadin, helburuek garbi agertu behar dute, eta aktore bakoitza eta haren eskumenak ezagutu behar dira; identitateak, berriz, errespetatu egin behar dira, eta nazio bakoitzaren konstituzio sistemak osatzen duen markoaren barnean aritu behar da.

Europa hobeto gobernatzeak aukera emanen luke, Europako Batasuneko politikak aplikatzean, erregioen parte hartzea handiagoa izateko. Horri dagokionez, Gobernatzeari buruzko Liburu Zuria eztabaidarako oinarri interesgarria da.

Lehenengo eta behin, kide diren estatuak dagokie haien erregioak Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida horretara eramatea. Hala ere, erregioak erabakiak hartzeko prozesuan duten parte hartzea areagotzen bada, Europako Batasunaren zilegitasun demokratikoa ere gora egingen duenez, beharrezkoa da, baita ere, Batasunak aitortzean erregioen berariazko zereginak.

Europakoen etorkizunari buruzko eztabaida horri dagokionez, legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakariak eskatzen dute kontuan har dadila erregioen parte hartzearen defizita dagoela Europako Batasunaren erabakiak hartzeko prozesuan, eta gai horri ere heldu beharko zaiola hala Brusela/Laekengo adierazpenean nola gobernuen arteko hurrengo bilkuran. Nizan eginitako Europako Kontseiluan, Europakoen etorkizunarekin zerikusia zuten zenbait gai identifikatu ziren: eskumenen banaketa zehatzagoa –subsidiariotasunaren printzipioa errespetatuz betiere–, oinarritzko eskubi-deen karta, itunen sinplifikatzea –argi-goak izan daitezkeen eta ulerterrazagoak– eta Europako Batasunaren arkitektura instituzionala. Erregioen ustez, duten zereginak lotura zuzena du aipatutako gai horiekin.

Legegintza ahalmena duten erregioak, beste behin ere, eskumenen banaketa zehatzagoaren alde agertzen dira, oinarri hartuta eskumenen esleipenaren printzipioa, subsidiariotasunarena, proportzionaltasunarena, eta, betiere, kide diren estatuaren identitate nazionala errespetatzeko beharri jarraituta.

Printzipio horiek gidari direla berrikusi eta ezarri behar da Batasunaren eskumenen banaketa zehatzagoa, horrela ziurtatuko baitira segurtasun nahiz egonkortasun juridikoa, zeinak beharrezkoak baitira botere mailen osagarritasun eta lankidetzaren oinarri dituen sistema batek ongi funtziona dezan. Erregioak, beraz, kontuan hartu behar dira eskumenen banaketari buruzko eztabaidan.

Halaber, Europako Batasunaren arkitektura instituzional berriaren erronkari erantzuteko, beharrezkoa izanen da kontuan har daitezen erregioen arteko eta Europako instituzio guztien arteko interakzioak. Horiek horrela, legegintza ahalmena duten erregioek nahi dute Konbentzioaren aginduak bere baitan har dezala legegintza ahalmena duten erregioek hiru botereei dagokienez –botere legegile, exekutibo eta judiziala– dituzten zereginak. Bereziki aipatzekoa da legegintza ahalmena duten erregioei Europako Erkidegoen Justizia Auzitegian zuzenean errekurtsioak aurkezteko aukera ematea baldin eta haien eskumenak urratuak izan badira, kasuko konstituzio nazionalak errespetatuta betiere.

Aurrekoaren bidetik, legegintza ahalmena duten erregioek uste dute Erregioen Komitearen zeregina indartu egin behar dela erabakiak hartzeko prozesuan. Hala ere, erregioon iritzia da egungo marko instituzionalak ez duela aukerarik ematen estatuaren mailaren azpitik dauden entitateen behar eta itxaropenei erantzuteko.

Azkenik, Konbentzioari dagokionez, legegintza ahalmena duten erregioek espero dute estatuburu eta gobernuburuak erregioak prozesu horretara lot ditzatela. Erregioek uste dute balio erantsi nabarmena gehi dezatela; izan ere, ongi ezagutzen dute arlo sozial, ekonomiko eta kulturalen aniztasuna, zeinak Europaren aberastasuna,

indarra eta funtsa baitira. Ahal diren bide guztiak erabili behar dira Europako zilegitasun demokratikoa indartzeko; hori kontuan izanda, Konbentzioak indartze horretan lagun dezaketen aktore hautetsi oren iritzia islatu behar lituzke.

Horregatik, erregioei ez zaie egokia iruditzen Konbentzioko ordezkari nazionalen osaera –gubernuko ordezkari bat eta parlamentu nazionalako bi ordezkari, besterik ez–, eta berriz eskatzen dute legegintza ahalmena duten erregioen ordezkari zuzena.

Aurrekoarekin batera, legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakariak gobernu guztiei eskatzen die erregioetako ordezkariak sar ditzatela Konbentzioko ordezkari nazionaletan.

Aldi berean, Erregioen Komiteak baimena behar luke Konbentzioan eskubide osoko kide gisa parte hartzeko. Legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakariak uste osoa dute ezen komitearen ordezkariaren baitan lekua izateko eskubidea dutela.

Legegintza ahalmena duten erregioek batera antolatuko dituzte Konbentzioaren lanen jarraipena. Horrez gain, aurrerago ere lankidetzan arituko dira, bereziki hurrengo Gobernu arteko Bilkurari ekarpenak egiteari begira. Gogoratu daiteke haietako batzuek badutela zeregina itunak berresteko prozeduran.

Legegintza ahalmena duten erregioetako lehendakariak Waloniako Erregioiko ministro-lehendakariaren esku utzi dute erabaki hau helaraztea Kontseiluko buruari, Brusela/Laeken-en Europako Kontseiluak egingen duen bileran Batasunaren etorkizunaz eztabaidatuko dela gogoan harturik.”



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Zentsua egiteko kontrataturiko langileen lan egoerari buruzko galdera***FORU PARLAMENTARI M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduren 17an egindako bilkuran, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak Zentsua egiteko kontrataturiko langileen lan egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin dut, idatziz erantzun diezadaten:

Memento hauetan, etxeetan inkestak egiten ari zaizkie herritarrei zentsua gaurkotzeko; Estatistika Institutu Nazioanalak hamar urtez behin egiten duen lana da hori.

Horretarako, Nafarroan, Estatistika Institutu Nazioanalaren ordezkariak zenbait pertsona kontratatu zituen zentsuko agente gisa, eta horiek azken hiruhilekoan hasi ziren lanean. Jakinarazi zaigunez, agente horietako zenbait harrituta gelditu da jakin dutelarik ez zeudela Gizarte Segurantzaren alta eginda, edo lan kontratuko eguna baino hilabete beranduago egin zutela alta, hau da, hasieran, Gizarte Segurantzaren alta egin gabe aritu direla lanean.

Hori horrela, hau jakin nahi dut:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak denbora batez Gizarte Segurantzarik gabe egon ote diren lan horretan Nafarroan ari diren pertsonak?

2.- Estatistika Institutu Nazioanalaren ordezkariak zentsuko agente gisa kontratatutako langileek Gizarte Segurantzaren alta egitearen inguruan akatsak izan badira, zer neurri hartu dira edo hartzeko asmoa dago?

3.- Gai horretan Foru Komunitatean eskudunak diren erakundeetan jaso al da horri buruzko salaketarik?

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **N-232 errepidearen bikoizketak foru lurraldean izanen duen trazadurari buruzko galdera**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduren 17an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak N-232 errepidearen bikoizketak foru lurraldean izanen duen trazadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Orain gutxi jakin denez, Sustapen Ministerioak jendaurrean jarriko du N-232 errepidearen bikoizketak Logroño eta Arrabal artean izanen duen trazadura. Bikoizketa horretan, Sustapen Ministerioak N-232 errepiderako beste trazadura bat proposatzen du; hain zuzen ere, Nafarroako lurraldean sartu (Mendabia eta Viana artean) eta Logroñora, Nafarroako Gobernuak proiektatutako autobiaz baliatuz, Vianatik sartzea.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuari harrigarria zaio informazio hori Nafarroan ezkutatua izana, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak ez baitu inongo daturik eman. Orobat, deigarria da administrazio zentralak Iruña eta Logroño artean proiektatuta dagoen autobiaz baliatu bai, baina obraren finantzaketan ez parte hartzea. Bestalde, Sustapen Ministerioak dihardu N-232 errepidearen Errioxako aldea bikoizteko lanean eta, Nafarroan, Nafarroako Gobernuak da lan horretan ari dena. Hitz batean, Sustapen Ministerioak errepide zati bat aurreikusi du Nafarroako lurraldean eta horrek ondorioak izanen ditu Nafarroak proiektatutako bideetan; gure taldeak Nafarroako Gobernuak horri dagokionez izan duen ilunkeria salatu nahi du.

Horregatik, hauek jakin nahi ditugu:

– Zer ondorio izanen ditu Nafarroarentzat N-232 errepidea Nafarroako lurraldean sartzea, Viana eta Mendabia artean?

– Zer koordinazio ezarri da Sustapen Ministerioarekin?

– Zer iritzi du Herrilan Departamentuak Sustapen Ministerioaren planei buruz?

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Galdera, Agoizko eskualderako lurraldea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko**

### *BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduren 17an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Agoizko eskualderako lurraldea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion.

Agoizko Udaleko alkatetzaren arabera, lurraldea lehengoratzeko proiektu bat omen dago Agoizko eskualde osorako; alkatetza hala esaten ari zaie zinetzari eta herritarrei. Dirudenez, bai Nafarroako Gobernuak bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak onetsi dute lurraldea lehengoratzeko proiektu hori, Itoizko urtegiak kaltetutako eremu osorako.

Hain zuzen ere, hurrengoak bide daude aurreikusita Agoizko udal mugapean: estalitako igerileku bat eraikitzeke proiektua, kultur etxe bat, Toki Eder frontoiaren zaharberritzea, Alduntzan hondakindegia bat egitea, zubia eta inguruak leheneratzea, eta herriko zenbait kale egokitzea.

Horiek horrela, Agoizko Udalak zenbait erabaki hartu ditu obra horiek egiteko (proiektuak adjudikatu ditu, kontratazio prozedurak onetsi...), eta ez da lankidetzarako hitzarmen administratiborik edo bestelako inongo agiririk egiaztatzen duenik Nafarroako Gobernuak edo Ebroko Konfederazio Hidrografikoak obra horiek finantzatzeko edo horietan parte hartzeko konpromisoa hartuko dutela.

Esan da, halaber, eskualdeko garapen sozioekonomikoa helburu bide dukeen fundazio bat era-

tuko dela; horretan, Nafarroako Gobernuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaz gain, Agoitz, Artzibar eta Orotz-Beteluko udalak ere partaide izanen dira, dirudenez.

Horregatik guztiagatik, talde parlamentario honek hurrengo galdera hauek egin ditu:

1.- Sinatu al da Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin inongo lankidetzarako hitzarmen administratiborik Agoizko eskualdea lehengoratzeko?

2.- Ezezkoan, ba al du Nafarroako Gobernuak horrelako hitzarmenen bat sinatzeko asmorik, eta, hala bada, noizko dago aurreikusita?

3.- Nafarroako beste toki entitateek dituzten finantzaketa bide arruntez aparte, ba al da inongo finantzaketa konpromisorik Agoizko Udalarekin, adibidez departamentuen dirulaguntzarik edo hiru urteko planik?

4.- Jakinarazi al zaio Agoizko Udalari badela, departamenturen batek idatzia, eskualdea lehengoratzeko proiektu bat?

5.- Eratu al da Nafarroako Gobernuak partaide duen fundaziorik, Agoizko eskualdearen garapen sozioekonomikoa helburu?

6.- Zein dira partaide fundazio horretan eta zein da egin duten diru ekarpena?

Iruñean, 2001eko abenduaren 13an

Eleduna: Pernado Barrena Arza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lan egutegia Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2002 urtean**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 17an egindako bilkuran, honako erabakia hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren txostena ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan xedatuarekin bat etorriz, ondorengo ERABAKI DA:

**1.** Aste barruko jaiegunen eta egun berezien egutegia onetsi da, 2002 urterako. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen egutegia honako hau izanen da:

- Uztailaren 8a, 9a eta 10a: San Ferminetako jaiegunak.

- Uztailaren 11 eta 12a: San Ferminetako egun hauetan, lanaldia 09:00etan hasi eta 14:00etan bukatuko da.

- Abenduren 24a: jaieguna.

- Abenduaren 26a: lanaldia 09:00etan hasi eta 14:00etan bukatuko da.

- Abenduaren 31: lanaldia 09:30ean hasi eta 13:00etan bukatuko da.

Gainerako jaiegunak, Foru Komunitateko Administrazio osoarentzat ezarritakoak berak izanen dira.

**2.** Eguneko lanaldia, egun indarrean dagoena bera izanen da.

Urtarrilean lanaldia 08:00etan hasi eta 15:00etan bukatuko da.

Uztailean, abuztuan eta iraileko lehengo hamabostaldian lanaldia 08:00etan hasi eta 14:30ean bukatuko da.

**3.** Gainerako egunetarako, ondorengo lan-txandak ezarri dira, langile guztientzat ezarri ere (talde bakoitzaren berezitasunak ere kontuan hartu beharrekoak dira):

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

## Nafarroako Parlamentuko Bulego Orokorretako Erregistroaren ordutegi ofiziala

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduren 17an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 107. artikulua ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. 2002 urtean Parlamentuko Bulego Orokorretako erregistroaren ordutegi ofiziala hurrengoan izanen dela erabakitzea:

– Ohiko bilkuraldia:

Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

Larunbatetan: itxita.

Abenduaren 24an itxita izanen da eta jaiegun izanen da ondorio guztietarako.

Abenduaren 26an, 09:00etatik 14:00etara.

Abenduaren 31n, 09:30etatik 13:00etara.

– Bilkuren arteko aldia:

Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan: itxita.

Uztailaren 8, 9 eta 10ean itxita izanen da eta jaiegun izanen dira ondorio guztietarako.

2. Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako markatzen diren igande eta jaiegunak izanen dira jaiegun.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## Nafarroako Parlamenturako hiru fotokopiagailu erosteko lehiaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikorako dei egitea biltzarreko zerbitzuetarako hiru fotokopiagailu erosteko.

– Kontratuaren xedea: hiru fotokopiagailu erosi eta horiek mantentzea.

– Kontratuaren gehieneko aurrekontua: 85.344 euro, BEZa barne (14.200.047 pezeta), honela banatuak:

• 1. lotea: bi fotokopiagailu; gehieneko aurrekontua: 78.132 euro, BEZa barne (13.000.071 pezeta).

• 2. lotea: fotokopiagailu bat; gehieneko aurrekontua: 7.212 euro, BEZa barne (1.199.976 pezeta).

– Esleipena egiteko prozedura: irekia.

– Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio baldintza partikularren orrian esaten direnak; aurkeztutako agiriak jatorrizkoak izan beharko dute edota konpultsatuak bai notario bidez, bai administrazio bidez.

– Proposamenak aurkezteko lekua eta epea: Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, hurrengo egunetik kontatzen hasita, hogeita zazpigarren egun naturaleko hamabi orduak baino lehen.

– Proposamen teknikoak jendaurrean irekitzea: kontratazio mahaiak ezarritako egun eta orduan eginen da; datuok lizitzaile bakoitzari jakinaraziko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko iragarkien ohelean ere paratuko dira.

– Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: kontratazio mahaiak ezarritako egun eta orduan eginen da; datuok lizitzaile bakoitzari jakinaraziko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko iragarkien ohelean ere paratuko dira.

– Administrazio baldintzen orria eta baldintza teknikoak lizitzaileen esku daude hala Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Orokorrean (Arrieta kalea, 12 - 31002 Iruña) nola Nafarroako Parlamentuak duen web gunean ([www.parlamentonavarra.es](http://www.parlamentonavarra.es)).

Telefonoa: 948 209 209.

Faxa: 948 228 444.

Iruñean, 2001eko abenduaren 19an

Posta elektronikoa: [registro@parlamento-navarra.es](mailto:registro@parlamento-navarra.es)

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatzeko Arauetako 14 eta 15. arauak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledunak 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatzeko ordenari buruzko proposamen bat egin du. Aipatu proposamena entzunda, Biltzarreko Erregelamenduko 153. artikularekin bat eta 2001eko azaroaren 15ean Mahaiak hartutako erabakiaren bidez onetsitako 18. arauaren arabera, hona ERABAKIA:

1. Mahaiak 2001eko azaroaren 15ean Mahaiak onetsi zituen 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran eztabaidatzeko arauak. 14 eta 15. arauetan xedatutako eztabaidaren ordena aldatzen da: lehenbizi, gastuen egoera eztabaidatuko da eta, bigarren, proiektuaren testu artikuluduna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--